



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/07/22

Batzar Nagusiek ez dabe onartu Urduña eta Aiarako Bailara eta Galdakaoko Ospitalea lotzen dituan garraio publiko zerbitzua jaigunetan barrikusteko aukerea

Bizkaiko Foru Aldundiak ez ditu alkarrizketak “hasi” beharko Eusko Jaurlaritzagaz, domeketan eta jaigunetan Urduñatik eta Aiarako Bailaratik Galdakaoko Ospitalera joateko aukerea emongo dauen autobus zerbitzua zabaltzeko. Bizkaiko Batzar Nagusietako Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Batzordeak ez dau horren gaineko proposamena onartu gaur. Batzarretako Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztu dauen eta EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen aldeko botoak jaso dituan arauz besteko proposamenaren kontra bozkau dabe. Proposamenean eskaria egiten zan, Vicente Reyesek zuzentzen dauen saila Eusko Jaurlaritzagaz berbetan hasi daiten, “domeketan eta jaigunetan” garraioa “posible egiteko”.

Jesús Isasi batzordekide popularrak azaldu dauenez, bere eskaria, “Amurrioko eta Laudioko udalerrietan eta Arabako Batzar Nagusietan” talde politiko “guztien” aldeko botoak adostu zan eskari batetik sortu da. Bertan, jaigunetan Galdakaoko ospitalera joan behar daben gaixoei, senideei eta beharginei errepideko zerbitzua emotea eskatzen zan.

Arabako udal horreen eta Arabako Batzar Nagusien eskaria sindikatuen arlotik egindako errebindikazinoei gehitzen jake, Nuria Atienzak adierazo dauenez. Podemos Bizkaiaiko ordezkariak gogoratu dauenez, ibilpideak “59” geraleku ditu. EH Bilduk be bat egin dau proposamenagaz, bere eretziz “ez dauelako ezelango kosturik eragingo”. “Baloreteaz eta aztertzeaz gabiz berbetan”, adierazo dau Zigor Isuskizak.

BADAGOZ “ALTERNATIBAK” JAIEGUNETAN

PP taldeak aurkeztu dauen ekimenak EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako eretzia jaso dau. Talde biek esan dabenez, ezezko “horren ostean azterketa” dago, eta azterketa horretan ikusi daiteke ez dagoala “behar besteko eskaririk”, jaigunetan Urduñatik autobus zerbitzua ezarteko. Joaquín Colmenero batzordekide sozialistak esan dauenez, Bizkaiko udalerriaren eta Aiarako bailarako herri arabarren arteko Bizkaibus bitarteko konexioa “bermatuta” dago, Arrigorriagan egiten dan “garraio aldaketaren” bitartez.

EAJ-PNV-k bat egin dau sozialistek esandakoagaz. Gaur egun eskaintzen dan zerbitzua “egokia” da, erabiltzaile kopurua kontuan izanda, eta maiztasunak “onak” dira, lanegunetan zein jaigunetan. Unai Lerma ordezkari jeltzaleak esan dauenez,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizkaibusek gaur egun eskualde horretan eskaintzen dauen zerbitzuari, Renfe Aldirien lineak eskaintzen dauen zerbitzua gehitu behar jako. Zerbitzu horrek “30 minutuz behin” lotzen dau Urduña Arrigorriagagaz. “Beti dago gehiago eskatzeko aukerea, baina kartara eskainitako zerbitzuak ez dauka zentzurik”, adierazo dabe Foru Gobernu eusten daben talde biek.

“EZ DA DOIKUNTZARIK EGONGO BIZKAIBUSEN ETA BILBOKO METROAN”

Orain dala aste batzuetatik hona, Bizkaiko Talde Popularra, auresikusitakoa baino diru gitxiago batu dala eta, Bizkaiko Foru Aldundiak aurtongo aurrekontuetan egingo dituan “doikuntzen” gainean dabil galdetzen Aldundiko sailtako arduradunei. Oraingo honetan, Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako foru diputatuaren txandea izan da, eta bere gobernu kideek adierazitako gauza bera adierazo dau. “Ez da doikuntzarik egongo oinarritzko zerbitzu publikoetan”, esan dau. Bere sailari jagokonez, zerbitzu horreek “Bizkaibus eta Bilboko Metroa” dira, zehaztu dau.

Diru-sarreraren arloan gertetan ari diran “gorabehera handiak” dirala eta, Aldundiaren agindua “zuhurtzia” da, azken hiruhilekorako itziz ezinbestekoak ez diran partidak. Partida horreek aurrekontuaren II. Kapituluaren jasoten dira, gogoratu dau Reyesek. Aldundiko arduradunak denpora gehiago eskatu deutse oposizino taldeei, egoera aztertzeke, PFEZ edo Soziedadeen zergea modukoaren diru-bilketaren itxiera zelangoa dan ikusi arte.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
22/07/2016

Las Juntas Generales rechazan una revisión del transporte público que conecta Orduña y el valle de Ayala con el hospital de Galdakao, los días festivos

La Diputación foral de Bizkaia no tendrá que “iniciar” conversaciones con el Gobierno vasco para aumentar el servicio de autobuses entre Orduña y el valle de Ayala, y el hospital de Galdakao. La comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio de las Juntas Generales de Bizkaia lo ha rechazado hoy. Los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han votado en contra de una proposición no de norma presentada por el grupo Popular Vizcaíno, y apoyada por EH Bildu y Podemos Bizkaia, para que el área que dirige Vicente Reyes iniciara conversaciones con el Ejecutivo de Gasteiz para “posibilitar” el transporte “en domingos y festivos”.

El apoderado popular Jesús Isasi ha explicado que su petición nace de una ya acordada con el apoyo de “todas” las formaciones políticas en los “municipios de Amurrio y Llodio, y en las Juntas Generales de Araba”, en la que se pedía dar servicio por carretera a aquellos pacientes y trabajadores que deben desplazarse hasta el hospital de Galdakao los días festivos.

La petición de estos ayuntamientos alaveses y del parlamento de Araba se suma a las reivindicaciones efectuadas desde el ámbito sindical, ha apuntado por su parte Nuria Atienza. La representante de Podemos Bizkaia ha recordado que el trayecto cuenta con “59 paradas”. EH Bildu se ha sumado también a la propuesta por considerar que “no supondría ningún coste”. “Estamos hablando de valorar y estudiar”, ha señalado Zigor Isuskiza.

EXISTEN "ALTERNATIVAS" EN FESTIVO

La iniciativa del PP ha contado con el rechazo de PNV y PSE-EE. Ambos grupos han sostenido que hay un “análisis detrás” y que de él se extrae que no existe “demanda suficiente” para implantar un servicio de autobús desde Orduña, los días festivos. El apoderado socialista Joaquín Colmenero ha apuntado que la conexión entre la localidad vizcaína y los pueblos alaveses del valle de Ayala en Bizkaibus está “garantizada” mediante “un trasbordo” en Arrigorriaga.

El PNV ha suscrito los argumentos socialistas. El servicio actual es “adecuado” por el número de usuarios y usuarias con frecuencias “buenas” tanto los días laborales como los festivos. Su representante, Unai Lerma, ha sumado al servicio actual que Bizkaibus ofrece en la comarca al que ya dispone la línea de Cercanías Renfe que conecta Orduña con Arrigorriaga “cada 30 minutos”. “Siempre se puede pedir más, pero no tiene sentido



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

un servicio a demanda”, han apuntado las dos formaciones que sustentan al Gobierno foral.

“NO HABRÁ AJUSTES EN BIZKAIBUS Y METRO BILBAO”

Desde hace unas semanas el grupo Popular Vizcaíno viene preguntando a los responsables de área de la Diputación por los “ajustes” que hará el ejecutivo vizcaíno en los presupuestos de este año debido a la caída de la recaudación prevista. En esta ocasión, le tocaba dar explicaciones en el Parlamento de Bizkaia al diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, quien ha vuelto a repetir los mismos argumentos que sus compañeros de equipo de gobierno. “No habrá ajustes en los servicios públicos esenciales”, ha dicho. En lo que toca a su departamento, estos son “Bizkaibus y Metro Bilbao”, ha precisado.

Debido a las “fuertes oscilaciones” que se están produciendo en el capítulo de ingresos, la consigna foral es la “prudencia” y dejar para el último trimestre aquellas partidas no imprescindibles que vienen a concentrarse en el capítulo II del presupuesto, ha recordado Reyes. El responsable foral ha pedido a los grupos de la oposición más tiempo para analizar la situación hasta ver el cierre de la recaudación de impuestos como el IRPF o Sociedades.